



EMAITZAK

2025eko LEHEN SEIHILEKOA

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HAU INFORMAZIOA EMATEKO HELBURUEKIN BAKARRIK PRESTATU DA

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

1/ 2025eko 1SHko DATU AIPAGARRIENAK	4
2/ FINANTZA INFORMAZIOA	12
3/ BURTSAKO INFORMAZIOA	21
4/ JASANGARRITASUNA	23
5/ AURREIKUSPENAK	25
6/ ERANSKINAK	27

1/ 2025eko 1SHko DATU AIPAGARRIENAK

1.1 MAGNITUDE NAGUSIAK

ARRAKASTA KOMERTZIALA, BILAKAERA OPERATIBO ONA ETA FINANTZA ARLOKO SENDOTASUNA

Kontratazioa

3.069 M€
+% 78
vs 2024ko 1SH

EBIT

114 M€
+% 12
vs 2024ko 1SH

Cash flowa

0,3 M€

Jasangarritasuna

Aurrerapen positiboak Jasangarritasuneko Gida Planarekin lotuta

Zorroa

15.590 M€
+% 6
vs 2024/12/31

EBIT mj

% 5,2
ehuneko +0,3
puntu
vs 2024ko 1SH

DFN

225 M€

Salmentak

2.174 M€
+% 4
vs 2024ko 1SH

Emitza garbi egozgarriaren

73 M€
+% 40
vs 2024ko 1SH

DFN/EBITDA

0,7x

/ Eskarien zorroa historikoki maila altutan dago seihilekoan kontratazio-errekorra lortu ostean eta horrek etorkizuneko jardueraren ikusgarritasun handia ematen du


/ Jardueraren gorakada eta errentagarritasunaren hobekuntza

/ Finantza-egoera sendoa. Kutxaren bilakaera neutroa izan da aldi horretan Solarisen jarduerak gorakada izan duen testuinguruan

1.2 KONTRATAZIOA

CAF TALDEAREN KONTRATAZIO ERREKORRA URTEAREN LEHEN ERDIAN


GUZTIRA (M€)




Trenak	1.244	1.939
Autobusak	479	1.130

- Gainera, **Pipelineko aukera komertzialak maximo historikotan** mantentzen dira.
- Pipeline* barruan, *Intercity* trenak hornitzeko Belgikako SNCB operadorearekin adostutako proiektua azpimarratu behar da. Hain zuzen ere, **SNCBren Administrazio Kontseiluak 2025eko uztailaren 23an baieztatu du CAF dela preferred bidder-a.**

KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)



KONTRATAZIOAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)




- / Kontratazio berria **merkatuetara egindako gerturatze selektiboaren** ondorioz.
- / Kontratazioa **oso dibertsifikatuta** dago lau jardura-lerroen artean.
- / Gorakada zero-isurpeneko autobusen eta tren-ibilgailuen mantentze-zerbitzuen kaptazioan (kontratazio osoaren % 66 biltzen dute).
- / **Btb=1,4** Talde osoan 2025eko 1.SHan.
Btb=1,2 trenen segmentuan
Btb=2,2 autobusen segmentuan
- / 2025eko 2. HHko trenen kontratazioan honako hauek daude sartuta (besteak beste):
 - Tren-ibilgailu berriak Taipei Berrian (Taiwan)
 - Mantentze-lanetako zerbitzuak hainbat geografiatan. Horien artean, hauek azpimarratu behar dira: Zeelanda Berria, Brasil, Kolonbia, Espainia eta Suedia.
- / Autobusen kontratazio historikoa: 1.511 unitate 15 herrialdetan banatuta (zero isuriko autobusen proportzioa % 87koa da).
- / Banaketa geografikoa egiten badugu, Europak biltzen du kontratazioaren 2/3.

1.2 KONTRATAZIOA

SOLARISEN KAPTAZIO KOMERTZIALAK EZ DU AURREKARIRIK

/ Solarisek 1.000M€-ko kontratazioa gainditu du 2025eko lehen seihilekoan, eta profila enpresaren lehentasunekin bat etorri da

SOLARISEN KONTRATAZIOA (M€)



/ Solaris orain arte izan duen urteko kontratazio handienetik gertu egon da seihilekoan

- **Ikuspegi selektiboa eskaintzetan.** Horrek hazkundearekin eta errentagarritasunarekin lotutako **helburu estrategikoekin lerrokatuta** egotea bermatzen du.
- **1.511 autobus kontratatuta** (haietako batzuk, gainera, bezero ezagunekin >100 unitateko kontratu handien bidez). Solarisek Kanadan lortu duen lehen kontratua ere barne hartzen du¹.
- Kontratatutako **zero-isurpeneko autobusen maila historikoa** (1.314 unitate)
- Zero-isurpeneko hiriko mugikortasuneko **merkatuaren sendotasuna**
- **Solarisen lidergoa sendotu da** soluzio jasangarrietan
- **Merkatuaren konfiantza** Solarisen proposamen teknologiko eta operatiboan




¹ 107 trolebus hornitzeko kontratua 2025/03/07an iragarri zen. Oinarri-kontratuaren balioa 120M€ ingurukoa da eta aukera exekutagarriei esker, balio hori gutxi gorabehera 4 aldiz handitzeko aukera egon daiteke.

1.2 KONTRATAZIOA

TREN ARLOKO ZERBITZUEN KONTRATAZIO BIKAINA

/ Gainera, Zerbitzuetako aukeren *pipelinea* oraindik ere adierazgarria da eta laster gauzatzeko probabilitate handia du

TREN ARLOKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA (M€)



/ 6 hilabetetan, aurreko ekitaldi batzuetan kontratatutakoa baino bolumen handiagoa

- Kaptazioaren **dibertsitate geografikoa**. Herrialdeen artean, hauek nabarmendu behar dira: Erresuma Batua, Espainia, Eskandinavia (EuroMainten bidez) eta Hego Amerika
- Kontratazioa, **batez ere, CAFek instalatutako flotarekin lotuta** dago.
- **Dagoeneko zerbitzuan dauden floten** zerbitzuen kontratazioa. Horrek **exekuzioa hastea bizkortzen** du.
- Aurrerapen handia CAFek **trenen mantentze-lanen arloa indartzeko** egindako apustuan.
- Gaur egun, CAFek zerbitzuetako 150 kontratu baino gehiago ditu 20 herrialdetan banatuta, eta 11.600 kotxeren mantentze-lana egiten du. Guztira, >4.000 langile ditu.



1.2 KONTRATAZIOA

TIPOLOGIA ASKOTAKO KONTRATUAK BIGARREN HIRUHILEKOAN

/ 2025eko 2HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak



TAIPEI BERRIRAKO (TAIWAN)
TRANBIAK

- **Esparru-akordioa** sinadura Malaysiako Gamuda Berhad eraikuntza-enpresa entzutetsuarekin.
- Gehienez 23 URBOS tranbiaren hornikuntza (baita ordezkio piezak, deposituko ekipoak eta gidatze-simulagailu bat ere).
- Aukera guztiak kontuan hartuta, esparru-kontratuaren zenbatekoa **200M€** ingurukoa izan daiteke.



MANTENTZE LANEN ZERBITZUAK
MEDELLINEKO (KOLONBIA)
METRORAKO

- Kontratua sinatu du Medellineko metroarekin bere flotako 38 unitateren **ziklo luzeko mantentzea** egiteko. Unitateak CAFek hornitu dizkio 2009tik sinatutako ondoz ondoko hainbat kontraturen bidez.
- **Medellineko metroak CAFengan jarritako konfiantza sendotu** egin da. Izan ere, aurreko urte batzuetan ere eskaini du mantentze-lanetako zerbitzu hori bezero berarentzat, eta unitate berriak hornitzeko eta lehendik dituen beste batzuk birgaitzeko proiektuak ditu gaur egun abian.



MANTENTZE LANEN ZERBITZUAK
SAO PAULO (BRASIL) METRORAKO

- Motiva taldeko (garai batean CCR izena zuen) Brasilgo emakida-enpresarekin sinatutako kontratua. Sao Pauloko metroko 5. linean eskaintzen du zerbitzua.
- Akordioak 2011n **CAFek hornitutako 6 kotxeko 26 unitateren mantentze integrala** jasotzen du **14 urtez**.
- CAFek Brasilen dituen jarduerak indartu egin dira eta bezeroak CAFen jarritako **konfiantza berritu** da.



MANTENTZE LANEN ZERBITZUAK
AUCKLANDERAKO
(ZEELANDA BERRIA)

- Kontratua sinatu du Auckland One Rail Limitedekin (AOR).
- **CAFek Auckland Transport enpresari 2011. urtetik hornitutako 95 unitate elektrikoko** flotarentzat ingeniartzako eta prestakuntzako zerbitzuak eskaintzea eta ordezkio piezak hornitzea aurreikusten du kontratuak.
- Kontratuak **5 urteko** iraupena izango du.
- CAFek Zeelanda Berriko lanekin aurrera jarraitu du. **Bezeroa ezaguna da eta, beste behin, konfiantza jarri du CAFengan.**




AUTOBUS ELEKTRIKOAK
BERLINERAKO (ALEMANIA)

- 18 metroko Solarisen 270 autobus elektrikoren hornikuntza.
- Solarisekin **indarrean duen esparru-akordioaren** arabera bezeroak gauzatutako bigarren eskaria da (8 urteko tartean gehienez 700 autobus elektriko hornitzeko aukera jasotzen du). **Konfiantza CAF Taldean.**
- Eragiketaren balioa **220M€** baino gehiagokoa da. **Solarisek bere historian izandako autobus elektrikoen eskari handienetako bat** da.

1.3 ESKARIEN ZORROA

ESKARIEN ZORROA HISTORIKOKI MAILA ALTUAN DAGO ETA HORREK ETORKIZUNEKO JARDUERAREN IKUSGARRITASUN HANDIA EMATEN DU

GUZTIRA (M€)



Zorroa / Salmentak ratioa ¹	3,5x	3,7x
Autobusak	1,6x	2,2x
Trenak	4,0x	4,1x

/ Urtearen lehen erdian, **eskarien zorroa % 6 igo da** eta Solarisek ekarpen bikaina izan du.

/ **Solarisen eskarien zorroaren errekorra**, lehen seihilekoan % 42 hazi ondoren. Solarisen zorroa azken urteko salmenten 2,2 halako da; ratio hori da negozioak erregistratutako altuena.

/ Zorroak **ez ditu barne hartzen** 2025eko 3. HHan sinatutako esleipen hauek (horien **guztizko balioa 440M€ baino gehiagokoa da**):

- Tranbien hornidura Grenoblerako
- Coradia Polyvalent eskualdeko trenen hornidura Borgoina-Franche-Comté eskualderako
- Autobus elektrikoen hornidura Suedian

/ Zorro horrek **ere ez du barne hartzen bezeroek etorkizunean gauza ditzaketen aukeren bolumen handia**. Aukera horiek trenen segmentuan zein autobusen segmentuan zorroan sartuta dauden kontratuei lotuta daude (>9.000M€).

¹ Ratioa 2025/06/30ean, 2024an izandako salmenten arabera kalkulatuta.


1.3 ESKARIEN ZORROA

ZORROAK OSO DIBERTSIFIKATUTA JARRAITZEN DU, ETA EZ DA ALDAKETA HANDIRIK IZAN OSAERAN

ZORROAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)

2025eko 1.SH

- Tren-ibilgailuak
- Autobusak
- Zerbitzuak
- Soluzio integralak eta sistemak




Autobusen jarduerak eta mantentze-lanetako zerbitzuek zorroan duten garrantzia handitu egin da, jasotako kontratazio handiaren erakusgarri.

ZORRAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)

2025eko 1.SH

- Espainia
- Europako gainerako herrialdeak
- Amerika
- APAC
- Munduko gainerako tokiak



Eskarien zorroaren **osaera geografikoa nahiko egonkorra** da. Hala, **Europa da merkatu nagusia (% 74)** eta **munduko gainerako tokiak gora egin dute lehen seihilekoan**, Marokon eta Taiwanen, adibidez, proiektu berriak gehitu ostean.

2/ FINANTZA INFORMAZIOA

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

JARDUERAREN ETA ERRENTAGARRITASUNAREN PIXKANAKAKO GORAKADA

/ EBITaren igoera kontrol finantzarioarekin

(milioi eurotan)	2024ko 1SH	2025eko 1SH	Ald. 2025eko 1SH/2024ko 1SH
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	2.080	2.174	+% 4
USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT	102	114	+% 12
EBIT Marjinaren %	% 4,9	% 5,2	
Finantza arloko emaitza	(25)	(17)	-% 31
Finantza-sarrerak	13	11	-% 15
Finantza-gastuak	(32)	(25)	-% 23
Trukeko edo kanbioko aldeak	(5)	(2)	-% 51
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(1)	(1)	-% 8
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	3,0	8,0	+% 180
ZERGEN AURREKO EMAITZA	79	104	+% 32
Irabazien gaineko zerga	(25)	(28)	+% 11
Zergen ondorengo emaitza garbia	54	76	+% 41
Interes minoritarioak	1,6	3,0	+% 89
ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA	52	73	+% 40

/ **Salmenta** bateratuen **hazkundera**

/ **Marjina operatiboaren hedapena.**
Horren ondorioz, ustiapen-emaitzak % 12 egin du gora.

/ **Finantza-emaitza hobetu da**, batez ere zorraren kostu txikiagoagatik eta truke-tasen alde negatiboek izandako inpaktua txikiagoa izan delako.

/ Seihilekoari aplikatu dakioken **zerga-tasa eraginkorrak jaitsiera handia** izan du.

/ Hori guztia kontuan hartuta, **sozietateari egotz dakioken emaitza garbia nabarmen handitu** eta 73M€-an kokatu da. Zifra hori, urtetik urterako datuei dagokionez, **% 40 handiagoa** da.


2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

SALMENTA BATERATUEN GORAKADA, AUTOBUSEN SEGMENTUAK IZANDAKO BILAKAERA ONARI ESKER


/ Europak egin du Taldearen salmenten % 70eko ekarpena

SALMENTAK

BATERATUA




TREN ARLOA



- Trenak fabrikatzeko eta mantentzeko jarduera zabaldu izanak konpentsatu egin du proiektu integralek izandako ekarpen txikiagoa.

AUTOBUSAK



- Salmenten **gorakada adierazgarria** honako hauei esker:
 - Entregatutako zero isuriko autobusen proportzio handiagoa (% 68 vs % 60) eta unitate bakoitzaren prezio handiagoa 2024ko 1SHko datuekin alderatuta.
 - Entrega-bolumenaren gorakada (+% 6).


2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

TRENAK FABRIKATZEKO ETA MANTENTZEKO JARDUERA ZABALDU IZANAK KONPENTSATU EGIN DU PROIEKTU INTEGRALEK IZANDAKO EKARPEN TXIKIAGOA

/ Joera hori urtearen hasieran zorroak zuen exekuzio-planean aurrez ikusitakoarekin bat dator


TREN ARLOKO SALMENTAK

TREN IBILGAILUAK




- Honako hauek izan dira proiektu adierazgarrienak: LRVak Bostonerako (AEB), bidaiarien trenak Etihad Railentzat (Arabiar Emirerri Batuak), Oxygène eskualdeko unitateak SNCFrentzat (Frantzia), aldiriko trenak RATPentzat (Frantzia), eskualdeko trenak Aucklanderako (Zeelanda berria) eta Myanmarerako eta Regiolis eskualdeko unitateak SNCFrentzat (Frantzia).
- Guztira, aldi horretako **salmenten 1/3 inguru biltzen** dute.

ZERBITZUAK



- Tren-zerbitzuen bultzada** Espainiako, Erresuma Batuko eta Mexikoko floten mantentze-lanetan izandako ekarpen handiagoan eta ordezeko piezen hornikuntzak izandako gorakadan oinarrituta.

SOLUZIO INTEGRALAK ETA SISTEMAK



- Salmenten jaitsiera**, urteko planean **aurrez ikusitakoaren arabera**, aldi horretako proiektu integralek izandako ekarpen txikiagoa dela eta.

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA


HANDITU EGIN DA AUTOBUSEN ENTREGA BOLUMENA ETA NABARMEN HAZI DA GAMA ELEKTRIKOAREN PROPORTZIOA (AURREZ IKUSITAKOAREN ARABERA)

/ Eskarien zorroak maximo historikoak lortu ditu bolumenari eta osaerari dagokienez

AUTOBUSEN SALMENTAK

ENTREGATUTAKO AUTOBUS KOPURUA

ZORROAN DAGOEN AUTOBUS KOPURUA



Zero isurpenak	Autobus elektrikoen % (elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak)	% 40	% 64	% 82	AEBn lortutako lehen kontratua barne
	Trolebusen %	% 20	% 4	% 12	Kanadan lortutako lehen kontratua barne
Isurpen baxuak	Autobus hibrido en %	% 30	% 7	% 3	
	Emobility autobusen GUZTIZKO % (zero isuriak eta isuri baxuak)	% 90	% 75	% 97	

/ Solarisek 765 autobus entregatu ditu 2025eko lehen sei hilekoan (urtetik urterako tasa +% 6koa izan da, zorroaren **exekuzio-plan**ean aurrez ikusitakoaren arabera. Planak urtearen lehen erdian entregatu bolumen gero eta handiagoa izango zela aurreratu zuen, baina bigarren erdian aurrez ikusitakoa baino txikiagoa (**kontzentrazio handia 2025eko 4HHan**).

/ Entregatutako zero-isurpeneko autobusen proportzioa % 60tik % 68ra handitu da.

/ Zero-isurpeneko gamaren barruan, bereziki nabarmendu beharrekoa da **autobus elektrikoen salmentak izandako gorakada** (bateriadunak edo hidrogeno bidezkoak). Era horretako autobusak dira entrega guztien % 64 (489 autobus; 2024ko 1SHan, aldiz, 287 autobus entregatu ziren). Horrek guztiak agerian uzten du **Solarisek merkatu-segmentu horretan duen lidergoa**.

/ **Eskarien zorroak maximo historikoak** izan ditu bolumenean eta osaeran, merkatuaren joerari, Solarisen posizionamendu onari eta estrategia komertzial selektiboa aplikatu izanari esker. Hala,

- Lehen aldiz, 2.000 unitateko kopurua gainditu du
- Unitateen % 94 zero isurpenekoak dira


/ Saldu osteko zerbitzu-zorroa ere hazi egin da urtetik urterako datuetan.

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA


MARJINA OPERATIBOAREN HEDAPENA ETA EGOTZITAKO EMAITZA GARBIAREN GORAKADA HANDIA, SOLARISEK IZANDAKO DINAMISMOAK BULTZATUTA

EMAITZA

EBITa (M€) eta EBIT marjina (%)



INTERES MINORITARIOEN OSTEKO EMAITZA GARBIA (M €)



/ Aldi horretako EBITak % 12 egin du gora eta 114M€-ra iritsi da.

/ Emaiza garbiak hazkunde handiagoa izan du (% 40koa), 73M€ arte.

Segmentuka:

Trenak
Errentagarritasuna bilakaeran, exekuzioan dauden proiektu batzuetan kostuak handitu diren arren.


Autobusak
Errentagarritasuna bizkortu da urteko lehen seihilekoan,% 5,5era iritsi arte, eta Taldearen emaitzetan ekarpen adierazgarria eta gero eta handiagoa egin du.

2.2. CASH FLOW-A

KUTXA NEUTROA SORTU DA BATEZ ERE ZIRKULATZAILEA HANDITU DELAKO

BRIDGE EBITDA-CASH FLOW-A (M€)

2025eko 1.SH




2.3. EGOERA BALANTZE BATERATUA

FINANTZA EGOERA EGONKORRA ETA SENDOA

(milioi eurotan)	2024/12/31	2025/06/30
Aktibo finkoak	1.268	1.220
Zirkulatzailan egindako inbertsioa	(11)	78
AKTIBO GARBIA	1.257	1.298
Ondare garbia	896	921
Finantza Zor Garbia	226	225
Beste aktibo eta pasibo batzuk	135	152
ONDAREA ETA PASIBO GARBIA	1.257	1.298

CAPEX (MATERIALA + INMATERIALA) (M€)



- CAPEXen urtetik urterako jaitsiera 2024an ERP berriari lotutako inbertsio esanguratsua amaitu zelako.
- **2025eko 2SHan, inbertsioak bizkortzea aurrez ikusi** da. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, trenen arloko produkzio-ahalmena handitzera eta Alemanian mantentze-lanetarako biltegi bat eraikitzen bideratutakoak.

ZIRKULATZAILE GARBIA (M€)





- Zirkulatzaila handitu da, **Solarisen jarduera operatiboa nabarmen handitzearekin batera.**

2.3. EGOERA BALANTZE BATERATUA

FINANTZA ARLOKO INDARGUNEA ETA LIKIDEZIA HANDIA

/ Finantza Zor Garbiaren eta DFN/EBITDA ratioaren egonkortasuna



• Zor gordinak berriro ere behera egin du urteko lehen erdian


¹2025eko ekainaren 30ean, 10 milioi euroko "Gordailu ez-korrontek" birsailkapen bat erregistratu zen balantze bateratuaren "Aktibo finantzario korrontek" atalean, Taldeak parte hartzen duen kapital-partaidetza proiektuetako bati lotutako bermeari lotuta.

3/ BURTSAKO INFORMAZIOA

2025EKO 1SH-AN CAF-EKO AKZIOEK IZANDAKO BILAKAERA DELA ETA, KOTIZAZIOA % 33 IGO DA ETA ALDERAGARRIENAK GAINDITU ETA MAXIMO HISTORIKOAK FINKATU DITU

/ CAFi buruz berri ematen duten analista finantzario gehienek EROSTEKO gomendioa ematen jarraitzen dute

CAF VS IBEX ETA SEKTOREAREN ARTEKO BILAKAERA¹




Iturria: Factset.

BURTSAKO ADIERAZLEAK

	2025/06/30
Burtsako kapitalizazioa (eurotan)	1.599.196.987
Akzio kop.	34.280.750
Azken kotizazio-prezioa (eurotan)	46,7
Gehieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	49,8
Gutxieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	33,3
Negoziatutako bolumena (milaka akzio)	5.805
Negoziatutako eskudirua (milaka euro)	240.583

AKZIOEN EGITURA



² % 3 baino gehiagoko partaidetza edo, paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertsiogileak biltzen ditu (Iturria: CNMV). Likidezia-kontratuari lotutako autozorroko akzioak ere barne hartzen ditu.

4/ JASANGARRITASUNA

AURRERAPEN POSITIBOAK JASANGARRITASUNEKO GIDA PLANAREKIN LOTUTA

/ 2025eko 2HHko jarduera esanguratsuenak

INGURUMENEOA

- Gurpilen forjaketan, **tratamendu termikoko linea** berria jarri da abian.

SOZIALA

- Top Employer** ziurtagiria **Espainian eta Frantzian**, eta bigarren urtez **Merco-ren Top 100ean** sartua.
- Randstad Awards** sarietan, **Espainian lan egiteko. industria-enpresarik erakargarriena** izendatua.
- ISO 45001** ziurtagiria beste 3 egoitzatara **zabaldua**.

GOBERNANTZA

- Lankidetza-hitzarmena **Workivarekin, Jasangarritasunari buruzko Informazioaren datu- eta informazio-tresna** gisa.
- SAP GRC Process Control** ezarri da Jasangarritasun Informazioaren Barne Kontroleko Sistemari (SCIIS) eta zibersegurtasunari lotutako **kontrolak kudeatzeko**.

/ 2025eko 1SHko emaitza nagusiak

ADIERAZLEAK	JOERA	BENETAKOA 2024ko FY	BENETAKOA 2025eko 1SH	HELBURUA 2025eko FY
UE taxonomiarekiko lerrokatuta (negozio-bolumena)	↑ hobe	% 82,1	% 83,3	% 84,0
Maiztasun Indizea	↓ hobe	13,8	14,0	13,8
Sustainalyticsen jasangarritasuneko balorazioa	↓ hobe	Baxua	Baxua	Baxua
MSCI jasangarritasuneko balorazioa	↑ hobe	AA	A	A

5/ AURREIKUSPENAK

5. AURREIKUSPENAK

2025A HAZKUNDEA, ERRENTAGARRITASUNAREN PIXKANAKAKO HOBEEKUNTZA ETA FINANTZA ARLOKO INDARGUNEA OINARRI IZANGO DITUEN URTEA IZANGO DELA AURREZ IKUSI DUGU

/ Testuingurua ezegonkorra den arren, CAFek 2025erako aurreikuspenei eutsi die

2025 ¹		
Book-to-bill ≥1 Kontratazio selektiboa	Salmentak Bi digitutik gertu dagoen hazkundea vs 2024	EBITa / Eraitza garbia Errentagarritasunaren hobekuntza vs 2024
Dibidendua Eraitzen bilakaerarekin bat	FZG/EBITDA ratioa Egonkortasuna 2024. urtearekiko	Jasangarritasuna Isurpen murrizketa jarduera handiagoko egoeran

¹ Ikuspegi horiek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoen egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

6/ ERANSKINAK


6.1 KONTRATAZIOAREN XEHETASUNA

/ 2025eko urtarrila-ekaina aldian iragarri eta eskaeren zorroan sartu diren kontratuak

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK	ZENBATEKOA (etorkizuneko aukerak kanpoan utzi dira)
2025eko 1HH	Intercity ONCF	Maroko	Trenak / Tren-ibilgailuak	30 Intercity trenen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	600M€ inguru
2025eko 1HH	Tours	Frantzia	Trenak / Tren-ibilgailuak	19 tranbia hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Ez	-
2025eko 1HH	TransLink Vancouver	Kanada	Autobusak	107 trolebus hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai; 12 m-ko beste 201 unitate arte, eta 18 m-ko 204 unitate artikulatu arte	120M€ inguru
2025eko 1HH	MPK Poznan	Polonia	Autobusak	17 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	< 20M€
2025eko 1HH	Nobina Sverige	Suedia	Autobusak	89 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 100M€
2025eko 1HH	VR Sverige AB	Suedia	Autobusak	81 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2025eko 1HH	Northern	Erresuma Batua	Trenak / Zerbitzuak	10 urtez mantentze-zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	400M€ inguru
2025eko 2HH	Medellín	Kolonbia	Trenak / Zerbitzuak	Mantentze-lanetako zerbitzuen eskaintza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2025eko 2HH	New Taipei City	Taiwan	Trenak / Tren-ibilgailuak	23 tranbia arte hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	-
2025eko 2HH	MSP	Brasil	Trenak / Zerbitzuak	14 urtez mantentze-zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 100M€
2025eko 2HH	Auckland	Zeelanda Berria	Trenak / Zerbitzuak	5 urtez mantentze-zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2025eko 2HH	BVG	Alemania	Autobusak	270 autobus elektrikoren hornidura	Luzapena	Berria ez	Bai	> 220M€

6.2 FINANTZA INFORMAZIO OSAGARRIA

BRIDGE ONDARE GARBIA (M€)



¹Akzioko 1,34€-ko dibidendu gordin arrunta jasotzen du (2025eko uztailean ordaindutakoa).

6.3 AGENDA

Hitzaldiak eta roadshow-ak

- **2025eko irailaren 9a**
Autumn Conference Kepler Cheuvreux (Paris)
- **2025eko irailaren 10a**
UBS Quo Vadis Industrials (Birtuala)
- **2025eko irailaren 17a**
Iberian Conference Caixabank-BPI (Madril)

Emitzen argitalpena

- **2025eko azaroaren 13a**
2025eko 9. hilabeteko argitalpena



6.4 ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kuxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2025ko Lehen Seihilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.cafmobility.com) dago irakurgai, 6. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.





TRUST
IN MOTION